

AURKEZPENA

Kaixo!

Gu “**Pezera**” taldea gara. Eider Zubeldia, Arrate Malmierca, Maitane Otermin, Izan Zubilaga eta Maddi Aizpitarte kideok osatzen dugu.

Tolosako Inmakulada ikastolako ikasleak gara eta Erizain Laguntzailea izateko ikasten ari gara.



IDEIA

Gure ideia ikusmen arazoak dituzten pertsonentzako armairu adimenduna diseinatzea da.

Zer egin pentsatzen hasi ginenen eta itsuen edo ikusmen arazoak dituztenen bizitza nolakoa izango den eta zein zailtasun izango dituztenaren curiositatea sortu zitzaigun. Hortik abiatu zen gure proposamenaren ideia. Lehenik kaletik orientatzeko zerbait egitea bururatu zitzaigun, baina gaur egungo teknologiarekin asmatuta zegoela ikusi genuen.

Orduan, bista arazoak dituen pertsona batekin elkarrizketatu ginen bere iritzia jakiteko, eta galdetu genion ea zerk erraztuko zion bere egunerokoa. Janzteko orduan erraztuko liokeen zerbait ondo etorriko litzaiokeela esan zigun. Interneten bila hasi ginen eta hainbat gauza asmatu zeudela ikusi genuen, baina guk balore erantsi batzuk jarri dizkiogu.